

HITZ ELKARKETAZ

Euskaltaindiak Lexikologiaz Plentzia-n 1987-ko Urtarrilaren 30 eta 31-rako prestatu zituen batzarretara aurkeztaturikoa.

Alfonso Irigoien

Beloken 1986-garreneko Ekainaren 26 eta 27-an egin ziren bileretan Mikel Zalbide-ren txosten bi irakurri ziren hitz elkartuez eta hantxe bertan jakin genduen zuten mamia. Txanda heldu zitzaidanean hitza harturik hainbat ohar egin nituen eta astia izan balitz gehiago egin nitzakeen.

Hitz elkartuen sailkapena egiterakoan XVII kapitulu agertzen dira, eta hitz andana ihartuak sartuz gero, han esan zen bezala, XVIII.

Berez zerrendan sailkaturik agertzen diren hainbat eta hainbat gai hiztegian baino hobeto gramatika agertzekoak dira, alderdi batera utzirik, noski, gure denboran euskaldunen artean korritzen duten formak, eta, zertan esanik ez, memorio kulturallean ditugunak, horiek oro hiztegian bildu behar baitira.

Hitzak elkartzeko erregelak behar den moduan erabilirik hitzunen ohituretara heda daitezenez ere hiztegian kokatuko lirateke garaia letorkiekenean, ez lehenago. Hau da bide zuzena. Hala ere norbaitek berehala lerradake gure hizkuntzari dagokionez bazterretan badela eskabide premia gorrizko bat egungo zibilizazioko zenbait gauza arrunt nola esan behar liratekeen erantzunaren zai dagoena. Nik neuk halakoetan bakarrik amore emango nuke, ahal denik eta beharrezkoenetan baino ez izatekotan. Bestelako kultura hitzetan hizkuntza klasikoetara joko nuke, batez ere Europako hizkuntza moderno hedatuenetan hala jokatu izan baita, eta gu ere, etnia berezia osatzen dugunarren, Europa-ko kulturen buru belarri murgildurik baikaude, eta Europako kulturen erroak Grezia-tik heldu baitira.

Jakina, ematen zaigun sailkapena klasifikazio posible bat da eta beste norbaitek zuzen lezake edo alda, eta agian sanskritoazko hitz gehiago ere erabil daitezke, nahiz eta hizkuntza hartan diren moeta bat edo beste guk ez dugun edo gramatikazko egituran sartzen dugun, *-ko* genitiboa erabilirik, eta abar, esaterako. Esan nahi dudana da hori Euskaltzaindiak ez

lukeela erabaki behar eta ene ustez legezkoa dela irekirik geldi dadin etorkizun hurbilean nahiz luzean ikertzen jarraitu nahi lukeenarentzat.

Hala ere ez nuke elkarketa moeta bat aipatu gabe utzi nahi: Tovar zenak *geminatu semantikoak* sailean sartu zuena. Hain zuzen ere “Geminados semánticos en vascuence” lanean, *Ioanni Dominico Serra ex munere laeto inferiae*, Universita degli studi di Napoli, Istituto di glottologia, 1959, 365-371 orr., tratatzen du kontu hori. Yu. VI. Zytsar-ek artikulu hori gogora erakarri berri digu Euskaltzaindiaren **Euskera** aldizkarian, “Sobre los geminados semánticos de A. Tovar”. XXX (1985), 439-444. “Proponemos se de el nombre de geminados semánticos, —dio Tovarr-ek—, a términos en que, de una manera que podríamos llamar pleonástica, se repite el semantema. Ello se debe a no otra cosa que el bilingüismo, y se registra especialmente en territorios bilingües”. “La geminación puede ocurrir con términos de un mismo dialecto y para evitar la homonimia: de este tipo es el al. *Diebstahl*, donde dos términos sinónimos se han sumado, quizá para evitar la homonimia entre el sustantivo relacionado con el verbo *stehlen* ‘robar’ (aaa. *stala* fem.) y el que significa ‘acero’, *Stahl* (aaa. *stal* masc.)”. Eta zenbait hizkuntzatakako ereduak aipaturik euskarazkoak ere ikertzen ditu, hala nola:

“*Abatorraze, abatorrazi* (bajo-nav., ronc.) ‘panal de miel’”, alderdi batetik *abao / aba / abe* duela, —latinetik omen dator—, eta bestetik zentzu bereko “*orraze* (alto-nav., guip., lab. sul.) ‘panal de miel’”, eta *orrazi*.

“*Abrebestiaki* ‘ganado’: de *abere* (de lat. *habere*, que ha hecho como en otras zonas románicas el camino contrario de *pecunia*, de acuerdo con el retroceso de la economía monetaria imperial a la economía primitiva de la alta Edad Media) y el lat. *bestia*”.

“*Arlauza* (nav.), *harlauza* (bajo-nav., lab., sul.), *arrilauza* (bajo-nav.) ‘losa’”, *harri* duela alderdi batetik eta *laus*a (lat. berandukoa) bestetik, eta *abar*.

“*Ari-albañu*, que hallo en D. de Agirre, *Garoa* (p. 12 de la 2ª ed.)”, alderdi batetik *ari* duela eta bestetik zentzu beretsuko *albañu* ‘hebra de hilo’.

“*Ussocolumba* (Leizarrague traduciendo Mateo 3,16) es un tipo bilingüe donde el latín glosa la palabra vasca en un compuesto”.

Galbarriartu deitura ere halakoa omen da. Izan ere alderdi batetik *galbar* du, erdaraz ‘calvo’, eta bestetik *i(h)artu*, *igartu*. Deitura hori Bilbo inguruan dagoen Derio-ko baserri izenetik dator, disimilazioz *Galbarriatu*.

Badira Tovarr-ek aipatzen dituenak baino gehiago ere. Horretara Oartzun aldeko *izelombrea*, erdaraz ‘apellido’, *izen* eta zentzu bereko

nombre dituela. *Ikusmiratu*, Gipuzkoan erabiltzen den *miatu* bezalatsu, azken finean *miratu* baita; *ikus(i)* eta zentzu berdintsuko *miratu* elkaturik; Aita Felix Bilbao-k darabil *Ipuin barreka*, Bilbao 1959, 203 orr., liburuan: *Billa ta billa, orko baztarrak ikusmiratu, ango idi-zaiñari itaundu, azkenean azeri bategaz topo egin eban andreak*. Azkue-ren hiztegian *ikusmiran* ‘observando, curioseando’ dator Gipuzkoarako, eta *ikusmira* ‘curioso’, ‘curiosidad’, Bizkai Gipuzkoetarako. *Ipuin barreka*, 186 orr.: *Ikusmira egon: Alan uste eben ikusmira egozan guztiak*.

Usatortola ere tipo berekoa da, zeren *tortola* uso moeta bat baita. Mikel Zalbide-k ere aipatzen du “Atributu edo koordinaziozko elkarteak” multzoan sarturik, “Atributuzko AB izen-elkarteak, B den A”. Or doa *poema olerki* ere, “Idem. A den B”. Baina bertan agertzen diren beste batzu ez dira gauza bera ene ustez, hala nola, *apaiz jaun*, jaun hitza berez ez baita ematen den titulua besterik, lehenago, gainera, aurrean jarririk, *praenomen* modura, Euskal Herriko Ifarraldean irauten duen erara, *jaun apez*, eta abar, esaten baitute, edo *alkate asto*, alkate guztiak ez baitira asto, ezta gutxiagorik ere.

Salmenta ere hemen sartu behar da. *Sal(du)* eta *benta*, —sudurkari asimilazioz *menta*—, elkaturik.

Bide beretik sortu ziren Bizkaiko dotrina zaharretako *Jaundone Peri*, eta abar, eta Lapurdi aldeko *Jondone Petri*, eta abar, *jaun* eta *done* < lat. beranduko *domne*, daramatzatela, eta Bizkaiko *Andrane Maria* eta Lapurdiko *Andredena Maria*, *andra* / *andre* eta *dona* < lat. beranduko *domna*, daramatzatela.

Guzti hau ezagutzen nuelarik hiru pertsonako batzordeak lehenengo eta Euskaltzaindiak gero Donostian nik neuk idatziriko *Kontsonante busti-palatalen grafiaz* erabakia onartu zuten, eta *busti-palatalak* geminatu semantikoa lehenengo aldiz paperean ipini banuen ere inork ez zuen txartzat hartu, ez harrigarriko begitarterik ipini, berezko gauza bailitz bezala, ikus **Euskera** XXIV (1979), 91-92 orr., 1978-XI-24-an Euskaltzaindiak onartu eta erabakia.

Jakina, hemen ezin utz dezakegu aipatu gabe *irribarre*, Bizkai osoan ondo ezagutzen den hitza, *irri* alderdi batetik eta zentzu berdintsuko *barre* bestetik duena, eta erdarara ‘sonrisa’ moduan itzul litekeena. Zentzuan, gainera, bai *irri* eta bai *barre* hitzetarik zerbait aldentzen da. Mikel Zalbide-k “Atributu edo koordinaziozko elkarteak” multzoan sartzen du *irrifarre* forma duela, “koordinazio elkarteak, izenak: gauza bat A da eta B da”. Egia esateko *irribarre* hitzaren ñabardura ez da es A-rena eta ez B-rena, zerbait berezi baizik.

Beste alderdi batetik, Beloken bertan hitzik eman ez banuen ere, Jose A. Aduriz-ek geroago karta bat bidali zidan esanik niri eskatzea erabaki zutela hamazazpigarren atalari buruzko txostenetariko bat, “PERU

ABARKA elkarte-mota”, eta berrikitan telefonoz ere deitu dit. Beraz pertsona izena eta izengoitia dutenak. Erdi aroan bereziki asko dira horrelakoak, baina ez dut uste beharrezkoa denik zerrenda amaigabekorik egitea honako eta aski litzateke bat edo beste aipatzea:

1330-garren urtean Artaxona-n korritzen zuten zenbait ematen ditut, ikus Juan Carrasco Pérez. *La población de Navarra en el siglo XIV*, Pamplona 1973, 291 orr. eta hurrengoak: *Sancho Chapel, Maria Miguel Annaye, Garcia Gorria, Pascoal Chapel, Sancho Lascarro*, —bada beste bat *Garcia Lascarra Caçador*, artikulu gradu gabekoz hornitua, eta duen ofizioa eskribauak erdaraz itsatsirik daramana—, *Johan Urdina, Pero Gaztea, Maria Sanoyz Landerra, Aluerta Guruçe, Miguel Garçeiz Andia, Sancho Guruzçe, Maria Arozca*. —seguru asko *Arozça*—, *Garcia Çuria, la muyller de Miguel Gorria, Aluerta Lasterra, fijo Pero Lasterco*, —baldin -ko berrekailuak zentzu hipokoristikoa ematen badio, eta ez genitibo balioa—, *Miguel Andia, Garcia fijo de Toda Maloa Çauardo, Sancho Leuna. Pascoal Bichia, Xemen Çuria, Miguel Ardia, Miguel Çuria, Sancha Ardia, Pero Çuria, Maria Ortiz Aldazça, Pero Lascarro, Pascoal Aldazça, Maria Ona, Johan Çauardo, Sancho Landerra, Maria Miguel Çayoa, Johan Çayoa, Sancho Olata, Johan Ezquerria, Pero Gapela, Eluira Çamorquina [sic]*, —seguru asko *Çamarguina*, ofizioa adierazirik—, *Toda Galzar, Miguel Laburra, Pascoal Chipia, Sancha Ederra, Maria Murro [sic], Michel Gorria, Sancho Mercatori [sic], Garcia Arozça, Pero Surra, Maria Uella Laburra, Pascoal Mercatori [sic], Martin Maloa, Sancha Maloa Aqueza, Garcia Surra, Pero Uerri, Pascoal Martin Chipi, Sancho Murru*, —ikus gorago *Murro*—, *Miguel Euna, Lope Leuna, Garcia Lasterra, Pascoal Surra, Garcia fi de Sancho Laborraria*, —seguru asko *Laboraria*—, *Maria Ygurra, Miguel Garçeiz Lucea, Johan Velça, Miguel Vrdina, Garcia Maloa, fijo de Pascoal Senar, Eluira de Ochoa Galuarra, Miguel Çuria Landergori*, —agian *Landergori*, forma zuzenez heldu baldin bada guganaino, gradu hurbileko mugatzailedun bokati-boa dela—, *Lope Lazcarro*, —hemen -z-rekin, gorago ez bezala—, *Garcia Uiriçe, Maria Varrena, Sancho Surra, Sancha Ederra Aldaçça, Garcia Leuna, Garcia Çauardo, fijo Matheo Galuarco*, —baldin -ko berrekailuak zentzu hipokoristikoa ematen badio, eta ez genitibo balioa—, *Garcia Lasterra, Johan Gorria, Garcia de Lope Luçeça, Johan Aqueza, Miguel Rayteco*, —seguru asko aurreko *e*-bokala galdurik—, *Ochoa Galuarra, Sancho Arça, muyller de Sancho Çurra, Pero Cortes de Garcia Apeça, Sancho Landerra yerrno de Miguel Matayllaria, Johan Olata, Johan Biriçe, Pero Ederra, Ochoa Moça, Bartulon Matayllaria, Pero Martin Chipi, Pero Gorriço, Toda Çurria, Matheo Bargoa, Pascoal Migaya*, —Mogel-ek darabilen *bigae* bezalatsukoa—, *Semen Aqueza, Sancho Miguel Navarra*, —agian kolorearen izena, baina erdaraz Nafarroari dagokiola erabiltzen denarekin nahastenda—, *Martin Olata, Domingo Çelay, Eluira Guruçe, Eluira Miguel Borrocaria, Maria Borrocaria, Maria Leuna, Maria Laza, Garcia Uaraçuri, Maria fiya Johan Charria*, eta abar.

Izengoiti konposatua dutenak, *bahu-vrihi*, 'arroz-asko[-dun] / ...[-ko]', ereduaren arauera, sanskritoiz idatzirik **बहुव्रीहि**, (1): *Garcia Ongaya, Teresa Beorburuco*, —baldin *-ko* berrekailuak zentzu hipokoristikoa ematen badio, eta ez genitibo balioa—, *Johan Aldagurri* [sic], —ikus hurrengoan datorren *Aldagurri* aldagarria, sustantibo eta adjetiboz osaturik—, *Pascoal Aldagurri, Pascoal fi Yluela, Toda Ardangrina*, ardoa gustatzen zitzaiolako, noski, *fijo de Pascoal Ardangrina muyller de Garcia Mutil Ederra*, sustantibo eta adjetiboz osaturik, *Miguel Mauruburu*, itxuraz mairu baten burua zuelako, edo, formaren aldetik bederen, mairuen buru izan zelako edo zelako, —gauza berdintsua gertatzen da *Toda fija de Lope Mayrubaro*-rekin, dirudienez beste azken elementu bat duela, agian *abaro*, eta *mairu* aldagarria *mauru* formaren orde—, *Maria Arceyz Ongaya, Miguel Mutil Ederra, Johan Periz Ongaya, Eluira Muthil Ederra, la muyller de Pero Ortiz Eztigrina*, ezta gustatzen zitzaiolako.

Badira *-ko* genitiboa daramatela atzean ipinirik agertzen direnak ere: *Johan Ayçingo, Miguel Ayçingo, Pero Lopez Mendigurrico*, —*Miguel de Mendigurria*, eskribauak erdarazko *de* preposizioarekin emanikoaren parekoa—, *Sandor Mendigorrigo, fijos de Benedit d'Urduylucoa*, erdarazko *d(e)* preposizioa ere baduela, *Pero Sanz Larraçeco, Garcia Larrayngo, Sancho Uazterreco, Garcia Aldazco, Eluira Aldazco, Sancha Lacoetaco*, —etako pluralduna daramala, *Martin Uazterreco, Sancho Larrayneco, fijo Miguel Larrayneco, Domingo Marqueylaco, Sancho Essacecoa, Maria Essacecoa, Eluira Garceyz Bazterreco, Miguel Bazterreco, Pero Essauco, Sancho Çarrançico, Miguel Larraçeco, Pascoal Sarrico*, —eskribauak erdaraz ematen duen *Garcia de Sarrta* bezalatsukoa—, *Maria Lacoetaco, Garcia Yturrico, Garcia Chirriacoa*, —eskribauak erdaraz ematen duen *Pascoal de Chirria* bezalatsukoa—, *Pascoal Ochauerriico*, eta abar.

Testu zaharretako azkeneko bide hau hobetsirik Jon Etxaide-k bere liburu bati titulua honela ezarri zion: *Hamasei seme Euskal Herriko*, orduan *-h-rik* gabe emana. Jakina, *Euskal Herriko hamasei seme* ere berdin berdin ipin zezakeen, baina zahar kutsuko dotorezia berezi bat hartzen du lehenengoak.

Pertsona izenetan, bestalde, egungo egunean *jaun* eta *andre* hitzak gibelean ipintzeko joera hedaturik badago ere, *Altube jauna*, eta abar,

(1) J. D. Anderson, *A manual of the bengali language*, New York, 1962, 71 orr. eta hurrengoak.

H. C. Scholberg, *Concise grammar of the hindi language*, third impression, Oxford University Press, 1968, 120 orr. eta hurrengoak.

Liburu bi horietan ikerturiko hizkuntzetan sanskritoizko karaktereak erabiltzen dira idazteko eta hitz arruntan parean korritzen duten kultura hitzak ere sanskritoizkoak dira.

Bahu-vrihi, 'arroz asko [-dun] / ...[-ko]', etsenplu bat da bera ere. *Karma-dharaya* edo deskripzio erako konposatu bat da adjetibo modura erabilia.

testu zaharretan aitzinean joaten ziren, eta egungo egunean maiz Euskal Herriko ifarraldean ere bai: *Jaun Enneco Didacoz de Murueta, Jaun Mauri Blascoz de Bosturia, Jaun Nuno Momez de Arratia*, (1070, *S. Juan de la Peña*), ikus nire lana, *Las leng. de los vizc.*, Bilbao 1985, § 8, *Jaun Umea*, (1243, *El gran Pr. de Nav.*, dok. 300). Ikus baita ere Garibai-k XVI-garren mendean bilduriko kanta zaharreen agertzen den *andra Milia Lasturco*, Luis Michelena, *Textos arcaicos vascos*, Madrid 1964, 3.1.5. Ama birjinari dagokiola ere egungo egunean *Andra Mari* esaten da gure artean, maiz baita erdaraz ere, eta ez bestela.

Ez dago esan beharrik, gauza ezaguna baita, patronimikoa erabiltzen denean ere izenaren atzean ipintzen dela, gorago ikusi dugun bezala: *Maria Sanoyz Landerra*, eta abar. Izan ere, Euskal Herriko eremuetan patronimikoa zaharrenetarikoa da, eta izenarekin batera huts hutsik joan zitekeen.

Bada, hala ere, arazo bat hitzen konposizioaren erregelei dagokiena eta batere aipatzen ez dena Mikel Zalbide-ren txostenean. Izan ere ezertan araurik ematekotan hor eman behar luke Euskaltzaingiak, bakoitza bere kontura abia ez dadin bide desberdinetarik. Esaterako, bi silabako lehenengo elementuetan *-i* agertzen baldin bazen azkenean normalki desagertu egiten zen lege zaharraren arauera, hala nola, *erbeste*, *herri duela*, *otordu*, *ogi duela*, eta abar, baina hala ere edozeinek esango luke aipaturiko bideari inola ere eutsi gabe *mendi hegala*, *mendi tontorra*, *mendi gaina*, edo *herri inguruak*. Hiru silaba edo gehiagokoetan berdin, azkenengo bokala beti erortzen bazen ere, hala nola, *errege* hitzean, ikus *erret bide*, inork ez luke osorik esan gabe utziko *politika gaiak*, esaterako. Honezaz, arazoa bere osotasunean ikusirik, eredu orokor batzu prestatzea ez litzateke zailegia.

Bilbao 1987 Urtarrilaren 29-an.